



Informazioaren Gizartearen Panorama:

Euskadi 2007-2008

Panorama de la Sociedad de la

Información:

Euskadi 2007-2008

**INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN
PANORAMA:
EUSKADI 2007 - 2008**

PANORAMA DE LA SOCIEDAD DE LA
INFORMACIÓN:
EUSKADI 2007 - 2008

Lanketa / Elaboración:

EUSTAT
Euskal Estatistika Erakundea
Instituto Vasco de Estadística

Argitalpena / Edición:

EUSTAT
Euskal Estatistika Erakundea
Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

© **Euskal AEko Administrazioa**
Administración de la C.A. de Euskadi

Ale-kopurua / Tirada:

1.500 **ale** / ejemplares
IV-2007

Inprimaketa eta koadernaketa:
Impresión y encuadernación:

Estudios Gráficos ZURE, S.A.
Carretera Lutxana-Asua, 24-A
48950 Erandio-Goikoa (Bizkaia)

ISBN: 84-7749-430-4

Lege-gordailua / Depósito legal:

PRESENTACIÓN

Con la presente edición del Panorama de la Sociedad de la Información, correspondiente al periodo 2007-2008, Eustat satisface dos objetivos; por un lado, el de seguir difundiendo productos de síntesis para ofrecer a responsables políticos y planificadores, así como a los agentes económicos y sociales, un caudal sistematizado, amplio y riguroso de información concerniente a uno de los ámbitos de mayor interés en la sociedad de hoy en día. Por otro, el de mantener la publicación en papel de ciertos productos de referencia.

Además, Eustat cambia el enfoque de una publicación que cumple ya con ésta siete ediciones. Frente a la configuración anterior, que estructuraba la información en función de la población de referencia –familias o empresas-, el nuevo planteamiento ordena y asocia la información en torno a los dos temas obvios: el equipamiento y el uso. Se ha agrupado toda la información en tres partes: equipamiento en TICs, uso del ordenador y uso de Internet. Dentro de cada uno de estos apartados se analizan los datos correspondientes a familias, empresas y el denominado mundo rural, que ha sido específicamente tratado.

Agradecemos sinceramente la colaboración tanto de las familias como de las empresas que han contestado a las encuestas respectivas y sin la cual esta publicación no hubiera sido posible.

Nos ponemos a disposición de los usuarios para cualquier información que quieran solicitar así como para cualquier sugerencia que quieran realizarnos.

Vitoria-Gasteiz, julio de 2009

VÍCTOR URRUTIA ABAIGAR
Director General

AURKEZPENA

Informazioaren Gizartearen Egoeraren argitaraldi honekin, 2007-2008, Eustatek bi helburu betetzen ditu. Batetik, sintesi-produktuak eskaintzen jarraitzea, bai arduradun politiko eta planifikatzaileei, bai eragile ekonomiko eta sozialei, gaur eguneko gizartearen interes handieneko arlo bateko informazio-iturri sistematizatu, zabal eta zehatza. Bestetik, erreferentziako zenbait produkturen paperezko argitalpenari eustea.

Gainera, honekin dagoeneko zazpi argitaraldi izan dituen argitalpen baten ikuspegia aldatzen du Eustatek. Aurreko konfigurazioan ez bezala, zeinak informazioa erreferentziako biztanleriaren arabera –familiak edo enpresak- egituratzen baitzuen, planteamendu berriak informazioa begi-bistako bi gairen inguruan ordenatu eta asoziatzen du: ekipamendua eta erabilpena. Informazioa hiru zatitan multzokatu da: IKT ekipamendua, ordenagailuaren erabilpena eta Interneten erabilpena. Horietako bakoitzaren barruan familia, enpresa eta landa-munduko –zeina espezifikoki izan baita tratatua- datuak aztertzen dira.

Inkestak erantzun dituzten enpresa zein familiei gure esker on bene-benetakoa; esan gabe doa haiek gabe argitalpena ez zela posible izango.

Erabiltzaileen esanetara jartzen gara, edozein informazio behar edo edozein iradokizun egin nahi digutelarik.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko uztailean

VÍCTOR URRUTIA ABAIGAR
Zuzendari nagusia

ÍNDICE

INTRODUCCIÓN

1 EQUIPAMIENTOS EN TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN EN LA C. A. DE EUSKADI

- 1.1 Equipamientos TIC en los hogares de la C. A. de Euskadi
- 1.2 Equipamientos TIC de la población vasca
- 1.3 Equipamiento TIC en las empresas vascas
- 1.4 Equipamientos TIC en el mundo rural
 - 1.4.1 Equipamientos en los hogares
 - 1.4.2 Equipamientos en el sector primario

2 USOS DEL ORDENADOR EN LA C. A. DE EUSKADI

- 2.1 Usos del ordenador en la C. A. de Euskadi
 - 2.1.1 Los usuarios de ordenadores
 - 2.1.2 Los contextos de uso del ordenador
 - 2.1.3 Las razones para el uso del ordenador

- 2.2 Personal laboral con acceso a los equipamientos TIC en las empresas

- 2.3 Usos del ordenador en el mundo rural

3 USOS DE INTERNET EN LA C. A. DE EUSKADI

- 3.1 Usos de Internet en la C. A. de Euskadi
 - 3.1.1 Contexto etnográfico de la red: dónde, cuándo y cuánto tiempo
 - 3.1.2 Cartografía e itinerarios de los usuarios de la red: cómo y para qué se accede

AURKIBIDEA

Pág/Or.

SARRERA

1 INFORMAZIO TEKNOLOGIEN EKIPAMENDUAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

- 1.1 IKT ekipamenduak Euskal Autonomia Erkidegoko etxeetan
- 1.2 Euskal biztanleriaren IKT ekipamenduak
- 1.3 IKT ekipamenduak euskal enpresetan
- 1.4 IKT ekipamenduak landa-eremuan.
 - 1.4.1 Ekipamenduak etxeetan
 - 1.4.2 Ekipamenduak lehen sektorean

2 ORDENAGAILUAREN ERABILERAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

- 2.1 Ordenagailuaren erabilera Euskal Autonomia Erkidegoan
 - 2.1.1 Ordenagailuen erabiltzaileak
 - 2.1.2 Ordenagailuen erabilera-testuinguruak
 - 2.1.3 Ordenagailua erabiltzeko arrazoiak

- 2.2 Enpresetan IKT ekipamendua erabil dezaketen lan-kontratadun langileak

- 2.3 Ordenagailuaren erabilera landa-eremua.

3 INTERNETEN ERABILERAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

- 3.1 Interneten erabilera Euskal Autonomia Erkidegoan.
 - 3.1.1 Sarearen testuinguru etnografikoa: non, noiz eta zenbat denboraz
 - 3.1.2 Sarearen erabiltzaileen kartografia eta ibil-

	Pág/Or.	
3.1.3 El comercio en Internet: Las compras de los consumidores particulares	51	bideak: nola eta zertarako sartzen dira 3.1.3 Merkataritza Interneten: kontsumitzaile partikularren erosketak
3.2 Conexión y usos de Internet en las empresas vascas	57	3.2 Interneteko konexioak eta erabilerak euskal enpresetan
4 CONCLUSIONES	62	4 ONDORIOAK
ÍNDICE DE GRÁFICOS Y TABLAS	72	GRAFIKOEN ETA TAULEN AURKIBIDEA
	77	

1. INTRODUCCIÓN

La incorporación de las nuevas Tecnologías de la Información y de la Comunicación a la vida cotidiana es uno de los grandes cambios que las sociedades contemporáneas vienen experimentando en las últimas décadas. Algunos de estos cambios se concretan en la obsolescencia de algunos equipos en un doble sentido, aparatos que desaparecen (fax) y en la necesidad de una actualización permanente, y en la incorporación de otros nuevos, como formas recientes de conexión a Internet a través de ordenador portátil o el teléfono móvil.

El conocimiento de las dotaciones tecnológicas de los hogares y de las empresas, así como la utilización que los usuarios realizan de ellas es el objetivo de esta Panorámica de la Sociedad de la Información en la C. A. de Euskadi.

Sobre cómo definir a la sociedad en la que estamos viviendo existe un largo debate. Algunos autores prefieren el calificativo de Sociedad de la Información por entender que son la información, su acumulación y manipulación, los elementos centrales sobre los que se ordenan las actividades más relevantes. Otros autores prefieren el término Sociedad de la Comunicación, desplazando su interés hacia la tecnología y los usos que están posibilitando elementos como el teléfono móvil, los ordenadores e Internet. Una tercera posibilidad apunta hacia la capacidad reflexiva y sus resultados como elemento constitutivo de las sociedades contemporáneas, más allá del grado de desarrollo tecnológico que hayan alcanzado. En este mismo sentido se mueven categorías como sociedad del conocimiento, sociedad red o sociedad mediatizada. Lo que todas estas categorías parecen tener en común es el hecho de situar los componentes científicos, tecnológicos y comunicativos más recientes en el centro del debate.

Eustat pretende contribuir a un mejor conocimiento de estas características emergentes de la sociedad vasca, proporcionando series estadísticas que ayuden a entender e interpretar el sentido de estos cambios, su presencia en los hogares y las empresas vascas, el grado de su utilización y su relación con otros ámbitos geográficos de nuestro entorno.

El primer apartado de esta panorámica está dedicado al análisis del equipamiento en Tecnologías de la Información y la Comunicación asociado al televisor, a los sistemas de audio, a la telefonía, al ordenador y a Internet en los hogares, en la población, en el mundo rural y en las empresas de la C. A. de

1. SARRERA

Informazio eta Komunikazio Teknologia berriak eguneroko bizitzan barneratzea izan da gaur egungo gizarteek azken hamarkadetan izan duten aldaketa handietako bat. Aldaketa horietako batzuk zenbait ekipamenduren zaharkitzapenean ikus daitezke, zentzu bikoitzean, zenbait aparailu desagertzen baitoaz (faxes) eta etengabe eguneratuta egoteko beharra baitago, eta beste ekipamendu berri batzuk barneratu behar baitira, esaterako, Interneteko konexioa ordenagailu eramangarriaren edo sakelako telefonoaren bitartez.

Etxeetako eta enpresetako teknologia-hornikuntzak eta erabiltzaileek horiei ematen dieten erabilera ezagutzea da Euskal Autonomia Erkidegoko Informazioaren Gizartearen Panoramika honen helburua.

Gaur egungo gizartea definitzeko moduari dagokionez, eztabaida zabala da. Zenbait egilek nahiago dute informazioaren gizarte izendapena erabiltzea, informazioa bera eta informazioa biltzea eta manipulatzeko hartzen baitituzte jarduera nabarmenen oinarri nagusi gisa. Beste zenbait egilek, berriz, nahiago du komunikazioaren gizarte terminoa eta euren interesa sakelako telefonoak, ordenagailuek eta Internetek ematen dituzten teknologietan eta erabileretan oinarrituta dago. Hirugarren korranteak hausnarketarako gaitasuna eta haren emaitzak hartzen ditu gaur egungo gizartearen funtsezko elementu gisa, izan duten garapen teknologikoaren maila gorabehera. Bide horretatik doaz ezagutzaren gizartea, sare-gizartea edo gizarte mediatizatu izendapenak. Baina maila horiek guztiak bat datoz osagai zientifiko, teknologiko eta komunikatiboak eztabaida-gunearen erdialdean kokatzerako orduan.

Eustatek euskal gizartean sortzen ari diren ezaugarri horiek hobeto ezagutzen lagundu nahi du, aldaketa horien zentzua, euskal etxeetan eta enpresetan betetzen duten lekua, erabileraren maila eta gure inguruko beste eremu geografiko batzuekiko lotura ulertzen eta interpretatzen lagunduko duten serie estatistikoak emanez.

Panoramika honen lehen atalean, telebistari lotutako Informazio eta Komunikazio Teknologien ekipamenduak aztertu dira telebistari, audio sistemei, telefonari, ordenagailuari eta Interneti dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko etxeetan, biztanleriaren artean, landa-eremuan eta enpresetan. Bigarren atalaren

Euskadi. El segundo apartado se centra en los usuarios del ordenador, los contextos de uso y las razones del no uso. También se analizará el personal laboral con acceso al ordenador en las empresas vascas. El tercer capítulo está dedicado a los usos de Internet, abordando en primer lugar, los contextos etnográficos de la red (dónde, cuándo y cuánto tiempo se usa), la cartografía y los itinerarios de los usuarios (cómo y para qué se accede) y la evolución en el mundo rural; y en segundo lugar, los usos en las empresas vascas.

Se utilizarán los datos de la Encuesta sobre Sociedad de la Información Familias (ESI-F) realizada durante los años 2000 y 2007 (medias anuales) y 2008 (datos del II trimestre), con muestras de 7.500 individuos de 6 y más años; la Encuesta sobre Sociedad de la Información Empresas (ESI-E) de los años 2001 a 2008, con una muestra cercana a 7.200 establecimientos; y la Encuesta sobre la Sociedad de la Información Sector Primario (ESI-P) de 2003-2007. Los datos comparativos con otras Comunidades Autónomas están tomados del Instituto Nacional de Estadística (INE) y para la comparación con otros países europeos proceden de Eurostat.

ardatza ordenagailuen erabiltzaileak, erabilera-testuinguruak eta ez erabiltzeko arrazoiak dira. Gainera, euskal enpresetan ordenagailua erabiltzeko aukera daukaten lan-kontratudun langileak ere aztertu dira. Hirugarren kapitulua Interneten erabilerari buruzkoa da eta, lehenik eta behin, sarearen testuinguru etnografikoak (non, noiz eta zenbat denboraz erabiltzen da), erabiltzaileen kartografia eta ibilbideak (nola eta zertarako sartzen da bertan) eta landa-eremuan izandako garapena aztertzen ditu; bigarrenik, euskal enpresetako erabilerak aztertu dira.

Informazioaren Gizarteko Familiei buruzko Inkestako (IGI-F) datuak erabiliko dira. 2000. eta 2007. urteen artean (urteko batez bestekoak) eta 2008. urtean (II. hiruilekoari buruzko datuak) egin zen Inkesta hori, 6 urte eta gehiagoko 7.500 pertsonako laginak erabilia; gainera, Informazioaren Gizarteko Enpresei buruzko Inkesta (IGI-E) ere hartuko da kontuan, 2001. eta 2008. urteen artean 7.200 establezimendu inguruko laginarekin egindakoa; baita Informazioaren Gizarteko Lehen Sektoreari buruzko Inkesta (IGI-L) ere, 2003-2007 urteen artean egindakoa. Beste Autonomia Erkidego batzuekiko datu konparatiboak Estatistika Institutio Nazionaletik (EIN) hartutakoak dira eta beste herrialde batzuetako datuekiko alderaketa egiteko Eurostaten datuak hartu dira.

Informazio eta Komunikazio Teknologia Berrien equipamendua eta erabilera biztanleriaren eta euskar enpresen artean

El equipamiento y los usos de las nuevas
Tecnologías de la Información y de la Comunicación
entre la población y las empresas vascas

1 EQUIPAMIENTOS EN TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN EN LA C. A. DE EUSKADI

En este capítulo se refleja el grado de implantación de determinadas tecnologías en la sociedad vasca, en los hogares, en las empresas y en el mundo rural. En cada uno de ellos se describen las infraestructuras existentes en estos ámbitos y la evolución que estas infraestructuras han experimentado en los últimos años. Además se realiza un análisis comparativo con otras Comunidades Autónomas y con algunos de los países de Europa.

1.1 Equipamientos TIC en los hogares de la C. A. de Euskadi

En este primer apartado se describen los diferentes equipamientos que se encuentran en los hogares de la C. A. de Euskadi. Se han diferenciado tres bloques: en el primero de ellos se tienen en cuenta aquellos que están relacionados con la televisión; en el segundo los relacionados con la telefonía y otro tipo de equipamientos de carácter más general, y, en el tercer bloque, los relacionados con el mundo de la informática, las diferentes infraestructuras asociadas a los ordenadores y a Internet, en definitiva lo que representan en estos momentos las Tecnologías de la Información y de la Comunicación.

En el Gráfico 1, están representados cada uno de los grupos de equipamientos (televisión, telefonía y otros equipamientos relacionados con el ordenador y la informática), así como los equipamientos que están asociados a estos bloques. Como se puede comprobar, la televisión convencional es el equipamiento con mayor presencia ya que está prácticamente en todos los hogares. La implantación de los diversos sistemas de recepción de televisión experimenta variaciones: mientras que la conexión por cable se ha mantenido (28,5% en 2007, 28,1% en 2008), la televisión de pago ha disminuido del 19,9% en 2007 al 15,8% en 2008, lo mismo que la antena parabólica que ha pasado del 11,1% al 10,6%.


1 INFORMAZIO TEKNOLOGIEN EKIPAMENDUAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Kapitulu honetan adieraziko dugu euskal gizartean zenbait teknologia-mota zein mailatan dauden ezarrita etxeetan, enpreetan eta landa-eremuan. Bakoitzean deskribatuta daude arlo horietan dauden azpiegiturak eta azpiegitura horiek azken urteetan izan duten garapena. Gainera, analisi konparatiboa egin dugu beste Erkidego Autonomo batzuekin eta Europako zenbait herrialderekin alderatuta.

1.1 IKT ekipamenduak Euskal Autonomia Erkidegoko etxeetan

Lehen atal honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko etxeetan dauden ekipamendu-motak deskribatuko ditugu. Hiru bloketan banatuko ditugu: lehenbizikoan, telebistarekin lotura daukatenak hartuko ditugu kontuan; bigarrenean, telefoniarekin lotutakoak eta izaera orokorragoko beste batzuk eta, hirugarrenean, berriz, informatikaren munduarekin harremana daukatenak, ordenagailuei eta Interneti lotutako azpiegiturak eta, azken batean, gaur egun Informazio eta Komunikazio Teknologia gisa hartzen direnak.

1. grafikoan adierazita daude ekipamendu-talde guztiak (telebista, telefonia eta ordenagailuarekin lotura daukaten beste ekipamendu batzuk eta informatika), baita bloke horiekin lotura daukaten ekipamenduak ere. Ikus daitekeen moduan, ohiko telebista da presentzia handiena daukan ekipamendua, ia etxe guztietan baitago. Telebistaren harrera-sistema anitzen ezarpenak hainbat aldakuntza izan ditu: kable bidezko konexioa mantendu egin da (% 28,5 2007an eta % 28,1 2008an) eta, aldiz, ordainpeko telebistak behera egin du (2007an % 19,9ko portzentajea zeukan eta 2008an, berriz % 15,8an), baita antena parabolikoak ere, % 11,1koa izatetik % 10,6koa izatera igaro baita.




Iturria/Fuente: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak (IGI-F) / Encuesta Sociedad de la Información. Familias (ESI-F)

La presencia del vídeo en los hogares está disminuyendo – del 65,4% en 2007 al 61,9% en 2008 –, mientras aumenta la presencia del DVD, del 69,3% al 70,7%, que sustituye al mismo pues proporciona una mayor calidad de imagen y también unas mayores posibilidades de uso. Esta característica, relacionada con el ocio, es particularmente relevante sobre todo en las familias con hijos, que tienen un porcentaje mayor en cualquiera de los elementos asociados a la televisión, como se puede comprobar en el Gráfico 2. Por el contrario, los hogares unipersonales o compuestos (que hace referencia a los hogares formados por personas que viven solas o por varias personas que pueden tener o no una relación familiar, pero sin formar pareja o sin relación paterno-filial) son los que tienen menor número en cualquiera de los equipamientos asociados a la televisión. Estas diferencias son más importantes en el caso del vídeo (73,6% en el caso de los hogares con hijos y 40,2% en los hogares unipersonales o compuestos) y del DVD (88,2% y 43,8% respectivamente).

Bideoaren presentziak behera egin du etxeetan -2007an % 65,4koa zen portzentajea eta 2008an, berriz % 61,9koa- eta gora egin du DVDaren presentziak (% 69,3tik % 70,7ra). Azken horrek ordezkatu du lehena, irudi-kalitate hobea eta erabilpen-aukera handiak ematen baititu. Aisialdiarekin lotura daukan ezaugarri hori nabarmenagoa da seme-alabak dituzten familietan, telebistari lotutako edozein elementuren portzentaje handiagoa baitaukate, 2. grafikoa ikus dezakegun moduan. Aldiz, pertsona bakarreko etxeetan edo konposatueta (bakarrik bizi diren pertsonen etxeak edo senide harremana izanda edo ez izanda ere bikote harremanik osatzen ez duten edo aita/ama-seme/alaba loturarik ez daukaten pertsonen osatutakoak) telebistari lotutako edozein ekipamenduren portzentajea txikiagoa da. Alde horiek handiagoak dira bideoaren (% 73,6koa seme-alabak dauden etxeetan eta % 40,2koa pertsona bakarreko etxeetan edo konposatueta) eta DVDaren kasuan (% 88,2koa eta % 43,8koa, hurrenez hurren).

Familias por equipamientos TIC asociados al televisor según territorio histórico y tipología de hogares. 2008. (%)

2. **Familiak telebistari lotutako IKT ekipamenduen araberan banatuta, lurralde historikoa eta etxeen tipologia kontuan hartuta. 2008. (%)**




Iturria/Fuente: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak (IGI-F)/ Encuesta Sociedad de la Información. Familias (ESI-F)

Entre los distintos equipamientos relacionados con el televisor existen diferencias sobre su grado de implantación entre los territorios históricos, así como entre los diversos tipos de familias. En este sentido en Gipuzkoa hay un mayor porcentaje de hogares con antena parabólica y en Álava con televisión digital terrestre, mientras que en Bizkaia es mayor el porcentaje de hogares que cuentan con vídeo, DVD y televisión por cable.

Telebistarekin lotura daukaten ekipamenduen artean, alde handiak daude ezarpen-mailari dagokionez lurralde historikoen artean. Esaterako, Gipuzkoan dago antena parabolikoa daukaten etxeen kopuru handiena, Araban lurteko telebista digitala ezarrita daukaten etxeen kopuru handiena eta Bizkaian dago, aldiz, bideoa, DVDa eta kable bidezko telebista daukaten etxeen portzentaje handiena.

Familias por equipamientos TIC asociados a la telefonía y otro tipo de equipamientos según territorio histórico y tipología de hogares. 2008. (%)

3. **Familiak telefonari eta beste zenbait ekipamendu-motari lotutako IKT ekipamenduen arabera banatuta, lurralde historikoa eta etxeen tipologia kontuan hartuta. 2008. (%)**



Iturria/Fuente: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak (IGI-F)/ Encuesta Sociedad de la Información. Familias (ESI-F)

En cuanto a los equipamientos asociados a la telefonía y otros, el teléfono móvil ha adquirido una gran importancia tanto por el número de hogares que cuentan con él como por el número de móviles que hay en ellos. De la importancia y generalización de los teléfonos móviles da cuenta el dato de que casi uno de cada cuatro de los hogares tenga más de 3 móviles. Sin embargo, la radio (93,2%) y el teléfono fijo (92,2%) siguen siendo los equipamientos con mayor presencia en hogares vascos.

La cadena musical (63,9%) es también un elemento importante, al igual que la cámara digital. Este último tipo de equipamiento, a pesar de su novedad, está presente en muchos hogares (54,2%). Si atendemos a equipamientos que están incrementando su presencia, debemos señalar la aparición de los sistemas de navegación (GPS), (15,5%) mientras existen otros elementos, como el fax (3,1%), que tienden paulatinamente a la desaparición.

Telefonari eta beste batzuei lotutako ekipamenduei dagokienez, sakelako telefonoak garrantzi handia hartu du ekipamendu hori daukaten etxeen kopuruari dagokionez, baita etxe bakoitzean dagoen sakelako telefono-kopuruari dagokionez ere. Sakelako telefonoen garrantzia eta orokortzea adierazten du ondorengo datuak: lau etxetik ia batek 3 sakelako telefono baino gehiago ditu. Alabaina, irratia (% 93,2) eta telefono finkoa (% 92,2) dira euskal etxeetan presentzia handiena daukaten ekipamenduak.


Musika-katea (% 63,9) ere elementu garrantzitsua da, baita kamera digitala ere. Azken hori, berria izanik ere, etxe askotan dago (% 54,2). Presentzia gero eta handiagoa daukaten ekipamenduei erreparatuta, aipatu beharra daukagu nabigazio-sistemak (GPS) agertzea (% 15,5), aldiz, badira pixkanaka desagertzen doazen beste elementu batzuk, esaterako, faxa (% 3,1).

Los equipamientos relacionados con el ordenador en los hogares vascos, reflejados en el Gráfico 4, han experimentado cierto incremento, ya que en el año 2007 el 56,1% de los hogares contaba con algún tipo de ordenador mientras que en el 2008 este porcentaje se sitúa en el 57,1%. Mientras la presencia del ordenador de sobremesa se mantiene relativamente constante, el ordenador portátil ha experimentado un importante aumento –del 17,4% en 2007 al 22,0% en 2008-, al igual que las PDA. La relevancia del ordenador se hace más significativa por la relación que mantiene con utilidades como Internet y el correo electrónico.

Euskadiko etxeetan, ordenagailuarekin lotutako ekipamenduek, 4. grafikoa adierazitakoek, nolabaiteko hazkundera izan dute, 2007an etheen % 56,1ek baitzeukaten ordenagailu-motaren bat eta, aldiz, 2008an % 57,1koa izan baita portzentajea. Mahai gaineko ordenagailuaren presentzia nahiko egonkor mantendu da baina ordenagailu eramangarrien portzentajeak hazkundera nabarmena izan du -% 17,4koa zen 2007an eta % 22,0koa 2008an-, baita PDA aparailuak ere. Ordenagailuaren garrantzia nabarmenagoa da Internet, posta elektronikoa eta antzeko beste erabilerekin daukan loturaren eraginez.

Familias por equipamientos TIC asociados al ordenador e Internet según territorio histórico y tipología de hogares. 2008. (%)

4. Familiak ordenagailuari eta Interneti lotutako IKT ekipamenduen arabera banatuta, lurralde historikoa eta etheen tipologia kontuan hartuta. 2008. (%)



Iturria/Fuente: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak (IGI-F)/ Encuesta Sociedad de la Información. Familias (ESI-F)

Las conexiones a Internet desde los hogares se han incrementado en 4 puntos porcentuales con respecto a 2007, alcanzando al 47,5% de los hogares, lo que repercute, por otro lado, en que el 45,1% de los hogares disponga de correo electrónico. Este dato podemos observarlo desde dos niveles de análisis: por un lado, 4 de cada 10 hogares cuentan con e-mail y, por otro lado, si tenemos en cuenta únicamente a quienes disponen de conexión a Internet, el 95,0% cuenta con correo electrónico. Como tendremos oportunidad de comentar más adelante, una de las actividades centrales y más generalizadas dentro de las posibilidades de utilización de Internet es el envío y recepción de correos electrónicos.

Por territorios históricos, Gipuzkoa tiene un 59,7% de hogares con ordenador Álava un 57,6%, mientras que Bizkaia cuenta con el 55,4%. En el resto de equipamientos, destaca Álava en número de automóviles con navegador (22,6%). En el resto de equipamientos no existen apenas diferencias.

En relación con la tipología de hogares, las familias con hijos son las que cuentan con mayor presencia de ordenadores (81%) y de conexión a Internet (68,9%). Por el contrario, los hogares unipersonales y compuestos cuentan con una menor presencia de estos tipos de equipamientos, ya que únicamente el 25,6% tiene ordenador y el 19,2% conexión a Internet. De los hogares constituidos por una pareja, el 38% dispone de ordenador l y el 30,5% de acceso a Internet.

La evolución de las Tecnologías de la Información y la Comunicación en los hogares de la C. A. de Euskadi presenta diversas tendencias que aparecen representadas en el Gráfico 5. En los últimos años podemos destacar dos aspectos significativos y que están interrelacionados. En primer lugar, hay indicadores que muestran una tendencia a la obsolescencia y, consecuentemente, la rapidez de la renovación tecnológica, por ejemplo el descenso de la presencia del vídeo (del 71,6% en 2003 al 61,9% en 2008) y el incremento que está experimentando el DVD (del 25,0% en 2003 al 70,7% en 2008). En segundo lugar, hay datos que indican un incremento de tecnologías con mayor portabilidad y movilidad, así como un cierto estancamiento de la presencia del ordenador de sobremesa en los hogares de la C. A. de Euskadi y un aumento de la presencia del portátil.

En cuanto al resto de los equipamientos, en todos ellos se puede apreciar el aumento que están teniendo en los hogares el teléfono móvil, Internet y el correo electrónico.

Etiket egindako Interneteko konexioek 4 portzentaje-puntuo hazkundera izan dute 2007. urteko datuekin alderatuta, etxeen % 47,5etan baitaude eta, horren ondorioz, gainera, etxeen % 45,1ek posta elektronikoa daukate. Datu hori bi mailatan eman daiteke: batetik, 10 etxetik 4k emaila daukate eta, bestetik, Interneteko konexioa daukaten etxeak soilik kontuan hartuta, % 95,0k daukate posta elektronikoa. Aurrerago azalduko dugunez, Interneten erabilera-aukera nagusi eta orokortuenetako bat posta elektronikoa bidali eta jaso ahal izatea da.

Lurralde historikoak kontuan hartuta, Gipuzkoako etxeen % 59,7tan dago ordenagailua, Arabako % 57,6tan eta Bizkaiko % 55,4tan. Gainontzeko ekipamenduei dagokienez, Araba nabarmendu beharra dago nabigatzailea daukaten ibilgailuen kopurari (% 22,6). Bestelako ekipamenduetan ez dago ia alderik.


Etxeen tipologia kontuan hartuta, seme-alabak dauzkaten familietan dago ordenagailuaren (% 81) eta Interneteko konexioaren (% 68,9) presentzia handiena. Aldiz, pertsona bakarreko etxeetan eta konposatuetan, ekipamendu-mota horren presentzia txikiagoa da, % 25,6k soilik baitaude ordenagailua eta % 19,2k Internet. Bikote batez osatutako etxeei dagokienez, % 38k daukate ordenagailua eta % 30,5ek Internetarako sarbidea.

Informazio eta Komunikazio Teknologien garapenak Euskal Autonomia Erkidegoko etxeetan zenbait joera izan ditu eta 5. grafikoa daude adierazita. Lehenik eta behin, zenbait adierazle zaharkitzapenerako joera adierazten dute eta, horren ondorioz, berrikuntza teknologikoaren azkartasuna, esaterako, bideoaren presentziaren beherakada (% 71,6koa zen 2003an eta % 61,9koa 2008an) eta DVDaren erabileraren hazkundera (% 25,0koa zen 2003an eta % 70,7koa 2008an). Bigarrenik, zenbait datu adierazten dute eramangarritasun eta mugigarritasun handiagoko teknologiek hazkundera izan dutela eta mahai gaineko ordenagailuaren presentziak geldialdia izan duela Euskal Autonomia Erkidegoko etxeetan, eta ordenagailu eramangarrien presentziak gora egin duela.

Gainontzeko ekipamenduei dagokienez, guztiak hazkundera izaten ari dira sakelako telefonoari, Interneti eta posta elektronikari dagokienez.

Evolución de la implantación de las TIC en las familias de la C.A. de Euskadi. 2000-2008. (%)

5. IKTk Euskal Autonomia Erkidegoko familietan barneratzeko prozesuaren garapena. 2000-2008. (%)




Iturria/Fuente: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak (IGI-F)/ Encuesta Sociedad de la Información. Familias (ESI-F)

En relación con la conexión a Internet (Gráfico 6), mientras el 51,0% de las viviendas del conjunto del Estado cuenta con este equipamiento, en la C. A. de Euskadi el 54,2% de los hogares tiene Internet.

Interneteko konexioari dagokionez (6. grafikoa), Estatu osoko etxebizitzaren % 51,0k dauka ekipamendu-mota hori; aldiz, Euskal Autonomia Erkidegoko etxeen % 54,2k daukate Internet.

Familias (con población entre 16 y 74 años) por conexión a Internet según Comunidades Autónomas. 2008. (%)

6. **Familiak (16 eta 74 urte arteko kideekin) Interneteko konexioaren arabera, Autonomia Erkidegoa kontuan hartuta. 2008. (%)**




Iturria/Fuente: EIN. EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak (IGI-F) (2008) / INE. EUSTAT. Encuesta Sociedad de la Información Familias (ESI-F) (2008)

En relación con la Unión Europea de los 27 países, y teniendo en cuenta las conexiones a Internet con que cuentan los hogares con una población comprendida entre los 16 y 74 años, puede decirse que existen tres franjas muy diferenciadas en cuanto a conexiones a Internet, si se toma como referencia la media europea que gira entorno al 54% de hogares con conexión. Podemos comprobar que la C. A. de Euskadi se sitúa en la franja intermedia en cuanto a conexiones, con un porcentaje algo superior al 50%.

27 herrialdeen Europako Batasunari dagokionez, eta 16 eta 74 urte arteko biztanleko etxeek daukaten Interneteko konexioak kontuan hartuta, esan daiteke hiru maila oso desberdinak daudela Interneteko konexioari dagokionez, Europako konexiodun etxeen % 54 inguruko batez bestekoa erreferentzia gisa hartuta. Euskal Autonomia Erkidegoa, konexioei dagokienez, erdibideko mailan dagoela ikus dezakegu, % 50 pasatxoko portzentajea baitu.

Familias (con población entre 16 y 74 años) por conexión a Internet según países europeos. 2007. (%)

7. Familiak (16 eta 74 urte arteko kideekin) Interneteko konexioaren arabera, herrialde europarrak kontuan hartuta. 2007. (%)



Iturria/Fuente: EUROSTAT. EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak (IGI-F) (2007) / EUROSTAT. EUSTAT. Encuesta Sociedad de la Información Familias (ESI-F) (2007)

1.2 Equipamientos TIC de la población vasca

Los equipamientos tecnológicos entre la población vasca están experimentando un continuo incremento, aunque no todos los equipamientos lo hacen de igual modo y con la misma intensidad. A pesar de que determinadas tecnologías están directamente relacionadas con los hogares, vamos a poder comprobar cómo, en alguno de los casos, se puede apreciar una desigual distribución de las TIC entre la población. Esta distribución va a depender de variables como la edad, la relación con la actividad y el nivel de instrucción.

El teléfono móvil es el equipamiento que cuenta con mayor presencia entre la población de 15 años y más, superando el 92,7%, seguido del ordenador, con el 66,5%, y de las conexiones a Internet, con el 56,3%. En cuanto a la distribución territorial de teléfonos móviles, ordenadores e Internet no existen diferencias apreciables entre los tres territorios históricos (Gráfico 8).

1.2 IKT ekipamenduak euskal biztanleen artean

Euskadiko biztanleen artean, ekipamendu teknologikoak eten-gabeko hazkundean dira, baina guztiak ez doan gorantz modu eta maila berean. Zenbait teknologiak etxeekin lotura zuzena badute ere, ikusiko dugu zenbait kasutan IKT ekipamenduak ez daudela berdin banatuta biztanleen artean. Banaketa horrek hainbat aldagai izango ditu, esaterako, adina, jarduerarekiko lotura eta prestakuntza-maila.

Sakelako telefonoak dauka presentzia handiena 15 urte eta gehiagoko biztanleen artean, % 92,7koa. Ondoren, ordenagailua (% 66,5), eta Interneteko konexioak (% 56,3) daude. Sakelako telefonoen lurralde-mailako banaketari dagokionez, sakelako telefonoetan, ordenagailuetan eta Interneten ez dago alde nabaririk hiru lurralde historikoen artean (8. grafikoa).

El 66,5% de la población cuenta con algún tipo de ordenador, el 54,1% con ordenadores de sobremesa y el 26% con ordenadores portátiles. En un número reducido de casos, una misma persona posee tanto ordenador de mesa como portátil. Más allá del número de personas con conexión a Internet en el hogar, es importante considerar los motivos por los que el 43,7% de la población no cuenta con este tipo de conexión. De ellos, el 16,3% no dispone de acceso en su vivienda a Internet porque accede desde otros lugares, como el centro de estudios o el lugar de trabajo; el 78,8% no tiene porque no quiere, no lo necesita o desconoce la utilización de Internet; el 19,3% no sabe cómo utilizarlo; el 11,4% no cuenta con un ordenador o bien con el equipo necesario para poderse conectar y, finalmente, el 8,9% no tiene conexión a Internet porque considera que es demasiado caro.


Si tuviéramos que elaborar un perfil de las personas que no tienen conexión a Internet según sus características sociodemográficas (Gráfico 8), diríamos que corresponde con personas que viven aisladas, de 55 y más años, con un menor nivel de instrucción y que se encuentran en paro o inactivas. En este sentido, podemos hablar de la existencia de ciertos colectivos desfavorecidos en relación con las tecnologías de la información y la comunicación. El perfil de las personas que tienen conexión a Internet sería: estudiante, joven menor de 35 años y con estudios medios y superiores, como podemos comprobar en el Gráfico 9.

Biztanleen % 66,5ek ordenagailu motaren bat daukate; % 54,1ek mahai gaineko ordenagailuak dauzkate eta % 26ek ordenagailu eramangarriak. Kasu gutxi batzuetan, pertsona batek mahai gaineko ordenagailua eta ordenagailu eramangarria dauzka. Etxean Interneteko konexioa daukaten pertsonetarik haratago, kontuan hartu beharra dago biztanleen % 43,7k zergatik ez daukaten inolako konexiorik. Horietatik, % 16,3k ez daukate etxean Interneteko konexiorik beste zenbait lekutatik sartzen delako, esaterako, ikastetxetik edo lantokitik; % 78,8k ez daukate konexiorik nahi ez dutelako, behar ez dutelako edo ez dakitelako Internet erabiltzen; % 19,3k ez dakite erabiltzen; % 11,4k ez daukate ordenagailurik edo konektatu ahal izateko moduko ekipamendurik eta, azkenik, % 8,9k ez daukate Interneteko konexiorik garestiegia dela uste dutelako.


Interneteko konexioa ez daukaten pertsonen profila egin behar izango bagenu horien ezaugarri soziodemografikoen arabera (8. grafikoa), esango genuke isolatuta bizi diren 55 urte eta gehiagoko pertsonak direla, prestakuntza-maila txikiarekin eta langabezian daudela edo ez-aktiboak direla. Horri dagokionez, informazio eta komunikazio teknologiei dagokienez, pertsonaltalde baztertuak daudela esan daiteke. Interneteko konexioa daukaten pertsonen profila, berriz, ondorengoa izango litzateke: ikaslea, 35 urtetik beherako gaztea eta erdi edo goi mailako ikasketak dituen, 9. grafikoa adierazita dagoen moduan.

Población de 15 y más años según las principales tecnologías. C. A. de Euskadi. 2008. (%)

8. 15 urte eta gehiagoko biztanleak teknologia nagusien arabera banatuta. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2008. (%)



Iturria/Fuente: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak (IGI-F) / Encuesta Sociedad de la Información. Familias (ESI-F)




Iturria/Fuente: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak (IGI-F) / Encuesta Sociedad de la Información. Familias (ESI-F)

En el período 2000-2008 se han producido fuertes variaciones en cuanto a la implantación de tecnologías entre la población, como aparece representado en el Gráfico 10.

La evolución que han experimentado en este período los equipamientos asociados al ordenador tiene especial relevancia. En el año 2000 el 39,1% de la población de 15 y más años tenía ordenador y en 2008 este porcentaje se eleva al 66,5%. En cuanto al incremento interanual de los ordenadores hay ligeras variaciones, produciéndose un fuerte crecimiento en el período 2000 a 2001 (4 puntos de incremento) que se ralentiza a partir de esta fecha. Al hacer referencia al ordenador se debe diferenciar entre los ordenadores de sobremesa y el ordenador portátil, elemento que en estos últimos años ha ido adquiriendo mayor presencia, hasta el punto de que buena parte del crecimiento en el número de ordenadores se debe al incremento de ordenadores portátiles, que han pasado del 3,9% en 2003 al 26% en 2008.

2000-2008 epealdian, aldakuntza nabarmenak izan dira biztanleen artean teknologiaren ezarpenari dagokionez, 10. grafikoan ikus dezakegun moduan.

Epealdi horretan ordenagailuari lotutako ekipamenduek izan duten garapena nabarmena izan da. 2000. urtean, 15 urte eta gehiagoko biztanleen % 39,1ek zeukaten ordenagailua; 2008an, berriz, % 66,5ek daukate. Ordenagailuen urtetik urterako hazkundeari dagokionez, aldakuntza txiki batzuk daude, 2000. urtetik 2001era hazkunde handia izan baitzen (4 puntuko hazkunde) eta, urte horretatik aurrera, gorakada moteldu egin baitzen. Ordenagailua kontuan hartuta, mahai gaineko ordenagailuak eta ordenagailu eramangarriak bereizi behar dira. Eramangarriek azken urteetan presentzia gero eta handiagoa izan dute eta, are gehiago, ordenagailuetan izan den hazkunde, hein handi batean, ordenagailu eramangarriei esker izan da. 2003an biztanleen % 3,9k zeukaten eta 2008an, berriz, % 26k.



Iturria/Fuente: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak (IGI-F) / Encuesta Sociedad de la Información. Familias (ESI-F)

En el período comprendido entre 2000 y 2008, las conexiones a Internet se han incrementado en 43,7 puntos habiendo pasado del 12,6% al 56,3%, con un crecimiento interanual de 4 puntos en los últimos años. Una evolución semejante es la experimentada por el correo electrónico, que se ha incrementado en 40,9 puntos en estos ocho años, y ha pasado del 50,0% en 2007 al 53,5% en 2008.

1.3 Equipamiento TIC en las empresas vascas

El nivel de equipamiento de las empresas de la C. A. de Euskadi depende principalmente del tamaño de la empresa. Aunque hay otros factores que también influyen, se puede afirmar que el factor más determinante es el número de personas empleadas con las que cuenta. Las empresas de 10 o más personas empleadas presentan, como norma general, un porcentaje de equipamiento en TIC superior al de las empresas más pequeñas. Al presentar los datos sobre el equipamiento en TIC de las empresas vascas utilizaremos el tamaño de la empresa como una de las variables fundamentales, además del territorio histórico donde está localizada la empresa y el sector económico en que desarrolla su actividad.

El teléfono móvil (79,2%) y el ordenador (74,8%), seguidos de Internet (66,4%) y el correo electrónico (63,5%), son los equipamientos tecnológicos de los que disponía un mayor número de empresas vascas en 2008. Si atendemos a su grado de implantación territorial, podemos observar que aunque las diferencias no son muy significativas, es en los establecimientos de Álava donde se da una mayor implantación del ordenador, del teléfono móvil y de la página Web y en los de Gipuzkoa el

2000. eta 2008. urteen artean, Interneteko konexioek 43,7 puntuko hazkundea izan dute eta % 12,6ko portzentajea izatetik % 56,3koa izatera igaro dira, eta urtetik urterako hazkundea 4 puntukoa izan da azken urteetan. Antzeko garapena izan du posta elektronikoa, 40,9 puntuko hazkundea izan baitu zortzi urte horietan eta 2007an % 50,0ko portzentajea izatetik % 53,5koa izatera igaro da.

1.3 IKT ekipamenduak euskal enpresetan

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen ekipamendu-maila, nagusiki, enpresaren tamainaren mende dago. Eragina daukaten beste faktore batzuk ere badaude ere, esan daiteke funtsezko faktorea enpresako langile-kopurua dela. 10 langile edo gehiago dituzten enpresek, oro har, enpresa txikiek baino IKT ekipamenduen portzentaje handiagoa daukate. Euskal enpresen IKT ekipamenduei buruzko datuak aurkezterako orduan, enpresaren tamaina hartuko dugu funtsezko aldagai gisa, baita enpresa kokatuta dagoen lurralde historikoa eta jarduera zein sektore ekonomikotan gauzatzen duen ere.


Sakelako telefonoa (% 79,2) eta ordenagailua (% 74,8), eta, atzetik, Internet (% 66,4) eta posta elektronikoa (% 63,5) dira 2008an euskal enpresa gehienek zeuzkaten ekipamenduak. Lurralde mailako ezarpenari dagokionez, ezberdintasunak oso nabariak ez izan arren, nabarmendu beharra dago Arabako establezimenduetan izaten direla ordenagailu, telefono mugikor eta Web orrialde gehiago; Gipuzkoan, helbide elektronikoa eta Internet dira gehien erabiltzen diren ekipamenduak. Bizkaian,

correo electrónico e Internet, quedando los de Bizkaia con cifras ligeramente inferiores para estas tecnologías

aldiz, teknologia hornikuntza-maila zertxobait baxuagoa da.

Tipo de equipamiento en los establecimientos de la C. A. de Euskadi según Territorio Histórico en 2008. (%)

11. Ekipamendu-mota Euskal Autonomia Erkidegoko establezimenduetan lurralde historikoaren arabera banatuta 2008an. (%)



Iturria/Fuente: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Enpresak (IGI-E). / Encuesta Sociedad de la Información. Empresas (ESI-E)

Si observamos los equipamientos que aparecen en el Gráfico 11, los que menor implantación tienen en las empresas vascas son la extranet (9,2%), la intranet (15,4%) y el intercambio electrónico de datos (EDI) (15,6%).


11. grafikoan agertzen diren ekipamenduei erreparatzen badiegu, euskal enpresetan ezarpen-maila txikiagoa daukatenak extranet (% 9,2) eta intranet (% 15,4) eta datuen elkartruke elektronikoa (EDI) (% 15,6) dira.

Si tenemos en cuenta el tamaño de las empresas, podemos observar diferencias claras en cuanto al tipo de equipamiento del que disponen. Las empresas pequeñas, en especial, aquellas formadas por una o dos personas, entre las que se encuentran los denominados autónomos, poseen un nivel de equipamiento tecnológico inferior al que poseen las empresas de mayor tamaño.

Enpresen tamaina kontuan hartzen badugu, ikus genezake alde nabariak daudela daukaten ekipamendu-motari dagokionez. Enpresa txikiek, bereziki, pertsona batez edo biz osatutakoek, tartean, autonomoek, enpresa handiagoek daukaten ekipamendu teknologiko maila baino txikiagoa daukate.

El tipo de tecnología que prima en las empresas pequeñas, como se puede apreciar en el Gráfico 12, es el teléfono móvil, mientras que en las de mayor tamaño es el ordenado. El 75,4% de las empresas vascas compuestas por una o dos personas dispone de teléfono móvil y un 65,1% de ordenador. En cambio, en prácticamente la totalidad de las empresas vascas con 10 o más personas empleadas se dispone de ordenador para el desarrollo de su actividad (98,2%), mientras que el porcentaje de las que cuentan con teléfono móvil es algo inferior (91,5%).

Enpresa txikietan nagusi den teknologia-mota, 12. grafikoan ikus dezakegun moduan, sakelako telefonoa da eta enpresa handiagoetan, berriz, ordenagailua. Pertsona batez edo biz osatutako euskal enpresen % 75,4k sakelako telefonoa daukate eta % 65,1ek ordenagailua. Aldiz, 10 langile edo gehiagoko euskal enpresa ia guztiek ordenagailua daukate euren jarduera gauzatzeko (% 98,2) eta sakelako telefonoa daukatenen portzentajea, berriz, txikiagoa da (% 91,5).



Iturria/Fuente: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Enpresak (IGI-E). / Encuesta Sociedad de la Información. Empresas (ESI-E)

En cuanto a las tecnologías vinculadas a Internet (acceso, correo electrónico y página Web), que son, hoy en día, las que se relacionan más directamente con la denominada Sociedad de la Información, el 66,4% de las empresas vascas está conectado a Internet, el 63,5% usa correo electrónico y el 30,3% tiene página Web, ya sea propia o alojada. Si nos fijamos en la variable estrato de empleo, los porcentajes de los equipamientos van creciendo conforme aumenta el tamaño de la empresa. En el año 2008, el 94,4% de las empresas de 10 o más empleados disponía de Internet, el 95,7% utilizaba correo electrónico y el 68,5% tenía página Web.

Como se puede observar en el Gráfico 13, las empresas que pertenecen al sector de actividades industriales presentan un mayor porcentaje de implantación tecnológica, seguidas de las empresas del sector servicios y del sector de la construcción. Esta mayor dotación tecnológica en el sector industrial se produce en todos los equipamientos, pues disponen de ordenador l el 80,8% de las empresas vascas del sector industrial, el 74,4% del sector servicios y el 73,9% del sector de la construcción. Estas diferencias porcentuales entre las empresas según el sector de actividad aumentan si nos fijamos en otros equipamientos tecnológicos como el correo electrónico. Así, tienen correo electrónico el 73,1% de las empresas vascas del sector industrial, el 63,5% del sector servicios y el 58,1% del sector de la construcción.


Interneti lotutako teknologiei dagokienez (sarbidea, posta elektronikoa eta web orria), gaur egun informazioaren gizarte gisa izendatzen dugunarekin lotura zuzenena daukatela kontuan hartuta, euskal enpresen % 66,4 Internetera konektatuta daude, % 63,5ek posta elektronikoa erabiltzen dute eta % 30,3k web orria daukate, bai berezkoa, bai beste webgune baten barruan kokatutakoa. Enplegu-mailaren aldagaia kontuan hartzen badugu, ekipamenduen portzentajeek gora egiten dute enpresen tamaina handitzen doan heinean. 2008an, 10 langile edo gehiagoko enpresen % 94,4k Internet zeukaten, % 95,7k posta elektronikoa erabiltzen zuten eta % 68,5ek web orria zeukaten.

13. grafikoan ikus dezakegun moduan, industria-jardueren sektoreko enpresek ezarpen teknologikoan portzentaje handigoa daukate eta ondoren, zerbitzu-sektoreko eta eraikuntzaren sektoreko enpresak daude. Industria-sektorearen hornikuntza teknologiko handiagoa ekipamendu guztiei dagokie, industria-sektoreko euskal enpresen % 80,8k, zerbitzu-sektoreko % 74,4k eta % 73,9k ordenagailua baitaukate. Jardueraren sektorearen arabera, enpresen artean dauden portzentaje-alde horiek aragotu egiten dira beste ekipamendu teknologiko batzuei erreparatzen badiegu, esaterako, posta elektronikoari. Industria-sektoreko euskal enpresen % 73,1ek, zerbitzu-sektoreko % 63,5ek eta eraikuntzaren sektoreko enpresen % 58,1ek posta elektronikoa daukate.

Tipo de equipamiento de los establecimientos de la C. A. de Euskadi según sector de actividad y estrato de empleo en 2008. (%)

13.

Ekipamendu-mota Euskal Autonomia Erkidegoko establezimenduetan jardueraren sektorearen eta enplegu-mailaren arabera banatuta 2008an. (%)




Iturria/Fuente: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Enpresak (IGI-E). / Encuesta Sociedad de la Información. Empresas (ESI-E)

Si tenemos en cuenta el estrato de empleo, las diferencias entre las empresas con 10 o más personas empleadas se reducen ya que los tres sectores disponen de un porcentaje similar de ordenadores y de acceso a Internet. Únicamente se produce una excepción con la página Web, uno de los equipamientos más relevantes para la presencia de las empresas en la Sociedad de la Información. No son las empresas de 10 o más personas empleadas del sector industrial las que lideran la incorporación a su actividad de esta tecnología sino las empresas del sector servicios, pues mientras el 73% de las empresas de servicios tiene página Web, este porcentaje desciende al 67,6% en el sector industrial y al 46,5% en el sector de la construcción.

